

AHOZKARITZAREN EKOIZPENA HEZKUNTZAN: BERTSOLARITZA, IPUINGINTZA ETA BESTE ZENBAIT ADIBIDE

Fito Rodríguez Bornaetxea

EDUKIAREN LABURPENA

P. Zumthor-ek dioskunez, gizarteak bertan aurki daitezkeen "Ahozkotasanaren egoerak direla medio defini genitzake" (*"Ahotsaren iraunkortasuna"* in Unesco Albistaria 1985.eko Urriko 9.alean). Gure gizarte garaikideari legokioken "Ahozkotasan arartekotua" zertan datzan eta horren arabera-ko hezkuntz zereginen azalpena egin ahal izana litzateke ikerketa honen helburua.

Horretarako egungo antropologiak eskaitzen duen zenbait ekarpenaz gain (Garfinkel, Goody, Havelock, Ong, Cansina...), Gramatologia (Derrida, Gelb...), Garapen Psikologia (Teberosky, Vygotski...), eta ahozko komunikazioaren didaktika (Mendizabal, Reyزابال, del Río...) jorratuak izango dira.

EDUKIAREN ESKEMA

- Ahozkotasanaren ikerketarako bideak: antropologia, (Garfinkel, Goody, Havelock, Ong, Vansina...), gramatologia (Derrida, Gelb...) eta garapen psikologia (Teberosky, Vygotski...)
- Ahozkotasuna eta Ahozkaritza: Kontzeptu berri baten azalpena.
- Ahozkaritza heziketan eta hezkuntzan: Stubbs nahiz Labov-en ekarpenak.
- Zenbait adibide euskal curriculum a oinarria delarik: Koplari-tza, Bertsolaritza, Ipuingintza etab...
- Jorratzeke dauden beste didaktika bideak.

SARRERA GISARA

Eusko Ikaskuntzaren garrantzia euskara, gizarte garatu bati dagokion eran, nazio-hizkuntza bezala berreskuratzeko

historian ez du inortxok zalantzan jarriko¹ izan ere, Oñatin buruturiko 1918ko aurreneko Biltzarratik bertatik abiatu zen Euskaltzaindia bera. Bigarren (Iruñea 1920an, "Hezkuntza eta sozio-ekonomiaz"), hirugarren (Gernika 1922an, "Hizkuntza eta Hezkuntzari buruzkoa") zein laugarren Biltzarrek (Gasteiz 1926an "Hezkuntza profesionalaren inguruan izan zena") Hezkuntzaren arazoei ekin bazieten ere, ezin izan zuten ahaztu arlo hartan hizkuntzaren normalizazioak, eta horretarako *literatur hizkuntzaren batasun premiak* berak zuen itzala. Ahozko kulturari buruzko arreta, ahokaria *denaz arduratu beharra*, finean euskal ahozkaritzaren aldarrikapena, berriz, Bergaran 1930an gauzatutako V. Kongresua medio eskuratzerik izan dugu. Bertan, On Manuel Lekuona zena oroituz hasiko gara gu ere Ahozkaritzaren ingururuan garatu beharreko oinongo honetako iharduna.

Aurretik honen inguruko ikerketetan aritu bazen ere², eta egia esanda, nahiz eta bizitza osoan zehar honako bidea lantzen ibili³, funtsezko pisua du euskal kulturaren Bergarako Kongresuan agertutako txostenak⁴.

1. Rgz. Bornaetxea F (1993). "Unidad de la Lengua Vasca y Unidad Política de los vascos" I.S.CH.E. XV. Lisbon 21-25 July 1993 (Educational Encounters Peoples and Cultures: The Colonial Experience.).

Rgz. Bornaetxea F (1993). "1993, 25 años de discurso institucional sobre la lengua vasca" in *Crítica del lenguaje institucional* Universidad Libre de Maspalomas, Gran Canaria, Abuztuaren 18a. Ed. Libertarias-en.

Rgz. Bornaetxea. F (1993). "Euskararen Batasuna eta Euskaldunen Batasun Politikoa" in *Uztaro* 9. Bilbo. 3/15 or.

2. Lekuona. M. (1918). *La métrica vasca*. Montepio Diocesano. Vitoria.

Lekuona, M. (1920). "De etnología vasca" *Euskalerraren Alde* aldizkaria.

3. Lekuona, M. (1983) "Bertsalariaren pentsamendu-ritmoa". *RIEV*. 31. urtea. XXVIII tomos, 2. zb. 237-250.

Lekuona, M. (1985). "Ahozko literatura Euskalerrian" *Euskal-Herria: Historia eta Gizarte*. Donostia.

4. Lekuona, M. (1930). "La Poesía Popular Vasca". Eusko Ikaskuntzaren V. Kongresua.

Adierazi bezala, ahozko literaturaren ikerketan On Manuelen iharduera aspaldikoa izanik eta etengabea izan bazen ere, 1930ko lanaren argitarapenak aditu-iritzien artean benetako mugarrira suposatuko zuen. Alde batetik, espaniar estatuan garai hartako aditu guztien arreta alfabetazeari eta literaturari begira zuzenduta zegoen⁵, bestetik eta euskararen batasuna medio, sentiberatasun handiegi zegoen Euskal Herrian erregistroen inguruko ekarpenei buruz⁶. Lekuonak, ordea, beste maila teorikoa landuz, zeharo beste ikusmira garatzea lortu zuen orduko moda guztien gainetik ahozkotatunari bere lekua emanez, baita euskararen batasunerako bidean oraindik jorratzeko dagoen bidea irekitzean asmatuz ere⁷. Esan dezakegu, batere beldurrik gabe ezaguna baita, On Manuel Lekuonari esker hemengo ahozko kulturak behar zuen duintasun maila eskuratzen hasi zuela.

Baina ez genuke dena esango horren ezaguna ez den duintze-bide hartarako funtsezkoa izan zen Odon Apraizen ekarpena orri hauetara ekarriko ez bagenu.

Ahozkotatunaren ikerketan Manuel Lekuonak eskainitako "pentsamendu-ritmo" (sic) aren ideiak, nonbait, arabar euskaltzaleak sakondutako azterketak omen zituen oinarritzat⁸. "Etena" ulertu ahal izateko harrek buruturiko bideak egungo ezaguerazko teoriak "pentsamendu ezarria" eta "pentsamendu literarioa"ren artean egiten duen etena bera dakarkigu gogora⁹. Izan ere, ikuspegi konparatiboaren arabera¹⁰ garai berean soviatar psikologia Uzbekistanen aztertzen ari zena eta orduko hemengo Apraiz eta Lekuonaren "etenaren" tratamendua antzekotzat har daitezke¹¹. Hau da, ahozkotatunaren emaitzak alfabetuaren menpekoea ez den beste pentsakeraren berri ematen digu, ez beste pentsamendu-mailarik ordea-horrek nolabaiteko jerarkia adieraziko bait luke-, pentsamenduak ekoizteko bi erregistro-sistema desberdinak baizik. Batere erkatzerik ez daudenak, gainera. Horren ikerketa zein azalpena litzake, ordea, lantxo honen xedea. Orain artekoak berriz, sarrera gisara, arazo teoriko honen jatorri hurbilerako lehengo urratsak gogoratzea izan du helburutzat bakarrik zeren, On Manuel Lekuonak zioskunez, "duana duanari aitortu behar zaio" eta.

1. AHOZKOTATUNAREN IKERKETARAKO BIDEAK

Aipatzen ari garen Eusko Ikaskuntzaren V. Kongresuko garai berean (mende honetako hirugarren hamarkadaren hasieran, hain zuzen) ezagutuarazi ziren zenbait soviatar psikologok Uzbekistanen egindako ikerketen ondorioak¹². Haietan honako hau plazaratzen zen: Alfabetakuntzak, idazketa zein irakurketa trebeziak eta beren bidez eskura zitezkeen edukiez gain, ezaguerazko egitura berezia moldatzen zuen¹³. Inola ere analfabetoak ez zuena baina halere, alfabetaratzeko prozeduren bidez lortzerik zuena. Beraz, beste eratan esanda, alfabetazeak pentsamendu literarioa eta abstraktua ekoizten zituen alfabetorik gabekoa soilik "pentsakera ezarria"ren jabea zen bitartean¹⁴. Bereizketa, edo eten hura, oinarritzko paradigma bihurtuko da Vygotskiren garapen psikologian¹⁵. Bi hamarkada beranduago Piagetek antzerako bereizketa erabiliko du (pentsamendu zehatza versus pentsamendu kontzeptuala) haurren pentsakera eta helduen ezauguera bereizteko¹⁶. Azken honek gizabanakoari buruzko garapen psikologia pentsakerazko eragiketetan oinarritzen duen bitartean soviatarrek hizkuntz erregistroen menperatze mailan fundatuko dute beren gizarte-garapen psikologiak. Aintzindariak izanik ere, laister asko alboratu behar izan zuten beren ikerketa aplikatuak stalinismoak "nekazarien kulturaren irainaz" jaurkitutako akusazioa medio¹⁷. Horretan zio handirik ez bazegoen ere, bertako agintariek behintzat halaxe zioten.

Edozein modutara, bai beren jarraitzaile zuzenak¹⁸, baita psikologia konparatuetako ikerlari frogatuenak ere¹⁹, hasierako berizketa hori segitu dute onartzen. Hau da, idazketak distantziatzeko pentsakera silogistikoa sortzen laguntzen du idazketarik gabeko kulturek errealtateari lotutako pentsamendua erabiltzen duten bitartean.

Honek ez du esan nahi ordea, kultura edo hizkuntza batzuk besteak baino "garatuagoak" direnik. Aitzitik, oinarritzko "eten" honek erakusten dizkigu pentsakera ekoizteko aurrealdintzen ezugarrienerariko garrantzitsuena, hau da, pentsamendu mota desberdinen arteko dagoen jauzi kualitatiboa eta bere erlazio zuzena alfabetaratzeko eta ahozko kulturaren arte-

5. Ruiz Berrio, J. (1991). 'Alfabetización y modernización social en la España del primer tercio del siglo XX' in *Leer y escribir en España*. Fundación Sanchez Ruiperez. Valladolid. 91/110 or.

6. Villasante, L. (1970). *Hacia la lengua literaria común*. Ed. Franciscana. Oñate. 99/122. or.

7. Altube, S. (1933). "La vida dal euskera" in *Euskera* XIVIV. 299/397. or.

8. Ikusi 1984ko "Lekuona Saria"zela eta (Maiatzak 14a) On Manuelek berak omenezko hitzaldian aitortutakoa:

"Nik nere bizitzan -nere bizitza jakin gaietakoan-maiteena izan dedan gaia, AOZKO LITERATURA izan da. Eta aitortu behar det-modestiak aparte-gai ortan nik geienai aurrea hartu diedala. Bertsolaritza-askok esaten duten bezala-Bertsolaritza gaur oraindik bizi bada, neri zor zait. Geitxo esatea ere bada; bañan beti ere egia izango da, bide ortan protagonismo zerbait egia naizela: Bertsolaritza-bidean, Aozko Literaturaren teoria explikatzen, alegia. Izan ere, Bertsolaritza bait da Aozko Literaturaren erpin-erpiñeko maila.

Bañan egia esan behar badet, Don Odon, zuk aurrea artu zenidan. Gasteiz'ko urte aietan, gauza orren detalle batean: (ez dakit oroituko zeran) Koplak Zaaarren misteriozko detalle batean: Koplaren asieran eta Koplaren gorputzaren artean dagon etena ezagutzen (...) Apraiz Jaunaren obserbamenak ez da osoa; bañan bai oso garrantzitsua gure Aozko Literaturaren Historiarako. Duana duanari aitortu behar zaio (...)

9. Luna, A.R. (1974). *Los procesos cognitivos. Análisis socio-históricos*. Fontanela. Barcelona.

10. Cole, M. (1974). *Cultura y Pensamiento, Relación de los procesos cognitivos con la cultura*. Limusa. Mexico.

11. Leontiev, A.N. (1972). "The concept of activity in Soviet Psychology". in *Wertsch, J.V. ed. Sharpe*. 47/61. or.

12. Rgz. Bornaetxea, F. (1993). "Hizkuntz gutxiagotuen pentsamenduen ekoizpena" in *Ele* 13. 7/32 or. Bilbo.

13. Vygotski, L.S. (1934). *Pensamiento y Lenguaje*, La Pléyade. Buenos Aires. 1983.

14. Rgz. Bornaetxea, F. (1892). 'Euskal-Herriko zenbait kasu ezagutzeko psikologiaren historiak jorratutako ildo klasikoaren arabera ikerturik' in Donostiako "Vº Symposium de la Sociedad española de Historia de la Psicología" aurkeztutako komunikazioa.

15. Luria, Leontiev, Vigotski (1979). *Psicología y Pedagogía*, Akal. Madrid.

16. Aurreko oharra aipatutako liburuaren itzulpena, adibidez, Piageten aholkuz egin zen. Gainera, Piageten zuzenketak azalduko dira etengabe, nonbait bera eta Vygotskiren arteko desberdintasunak azpimarkatzeko edo...(ikus aipatu liburuaren 5. Oharra).

17. Tulviste, P. (1992). "Diversidad cultural y heterogeneidad del pensamiento". in *Apuntes de Psicología*, 35. 7 or. Sevilla.

"En los primeros años, Luria no pudo publicar estos datos recogidos entre 1931 y 1932, ya que se trataba de un momento difícil para la psicología en Rusia, y en general para todas las áreas del pensamiento. En concreto, Luria tuvo problemas al ser acusado de buscar un tipo de pensamiento primitivo en el colectivo de campesinos soviéticos de Asia Central, así como de otros tipos de estúpidas críticas ideológicas. Por estas razones, Luria se vió obligado a abandonar la publicación de sus datos durante treinta años".

18. Tulviste, P. (1987). "The cultural-historical development of verbal thinking". *A psychological study*. Valgus. Tallin.

19. Werner, H. (1946). *Comparative psychology of mental development*, Science Ed. N.York.

ko binomioarekin. Inola ere betirako dena, bai ordea ekoizten den ezagueraz jabetzeko definikorra²⁰.

Jakina, ezin da esan ez Lekuona ezta Apraiz zirenak ere guzti honen berri zutenik, baina horrek ez du gutxitzen beren ekarpena, dagokion tokian kokatzen duela baizik. Bada, beste hainbatetan bezala, ez gutxiago ezta gehiago ere, bere garaian aipatutako pentsamendu "etena" euskalerriratzegatik, mende honetan zehar kultur ikerketetan erreferentziagarriak direnen artean egotearena merezi dute. Halere, bai disziplinaz baita metodologiaz bereizturik, ildo bereko honako beste hauen aipamena egiterik ere merezi duelakoan nago:

1.1. Ezagutzazko Psikologia jorratuz A. Teberosky-k²¹ maila teorikoan eta M.J. del Ríok²² ondorio didaktikoak landuz, ahozkoa eta alfabetatzearen arteko kultur zein hezkuntz bereizketak eskaintzen dizkigute.

1.2. Alfabetatzearen historian arlo dezberdinak daude. Historia zein Paleografia disziplinei hurbiltzen direnak²³ Alfabetakuntzaren edukiari arreta gehiago ezartzen duteneraino²⁴. Dena dela, hurbilpen hauen xedea alfabetatzearen ikerketa izanik ahozkotatasuna, alfabetoaren gabezia bezala aztertzen ez badute ere, ez ohi dute ahozko fenomenoaren ikerketetaz gehiegi saiatu.

1.3. Aurrekoen osagarria dugu Derridaren Gramatologia²⁵ non mendebaldar pentsakeraren egitura deseraikituz kasik ahaztutzeke dauden beste berezko pentsakerarekin berriro ere topo egiterik badago. Derridak berak adieraziko digu mendebaldarra den gure pentsamenduaren ezinbesteko eginbeharra dela "idazketan oinarrituriko pentsakera platonikoaren iraulketa"²⁶.

1.4. Ahozko historiak²⁷ nahiz soziologiak²⁸ bide emankorak oso jorratu bide ditu gizarte garaikidearen ikerketan. Idazketarako horren garrantzizkoa den ikuspegitik at zegoe-na, berriz, bide honetatik eskuratzen ditugun teknika nahiz haien interpretaziorako galbeak medio agertzen zaigu²⁹.

1.5. Kultur historiak ahozkotatasunaren arloan ohizkoak izan diren hurbilpenaz aparte era arrakastatsu landu ditu.

Horrela, egungo ahozko kulturek erabilitako parametroak aintzinako zenbait kultur emaitza ezagun era berri batez ulertzetik izan dugu³⁰.

1.6. Ikur-antropologiak, berriz, gero eta ekarpen gehiago eskaintzen dizkigu ez soilik ahozkotatasuna aztertzeke baizik eta ahozkoa eta "litera"ren artean dagoen ikur-desberdintasuna erabiliz gizarte garaikidea bera modu berritzaileaz ikertu ahal izateko³¹.

Hala eta guztiz ere, Vygotskirengatik zein aipatutako ikerlari zerrenda luze honengandik eskuratutako "pentsakeraren heterogeneitatea" eta, hastapenetan ahozkoari leporatutako "pentsakera ezarriaren" ezaugarriak eduki behar izatearenak ez du ematen egun (komunikabideen gizarte honetan bederen) behar bezain eraginkorra denik. Baina azken honen ulerkuntzak merezi duen lasaitasunaz eskuratze-ko goazen, bada, hurrengo atalera.

2. AHOZKOTASUNA ETA AHOZKARITZA: KONTZEPTU BERRI BATEN AZALPENA

Beraz, orain arte aipatu bezala, ahozkoan oinarritutako memoriaz kultura eta pentsamendu mota ekoizten denean, emaitza "pentsakera zehatza" edo "ezarria" edota "loturik" dela adierazi izan da, beti ere idazketaren erreferentziatik, jakina. Areago, ez zuen ematen aitatutako bikotetik kanpo pentsakeraren ekoizpenaz hitzegin zitekeenik ere. "Kultura agrarioa. Galdera inozentea...",³² zioen gure Lekuona zaharra zenak bere azken idazlanetaraino. Hau da, kultura baldin badago, edozein pentsamendu oinarrian nolabaiteko ikur grafikoa aurkitu beharra dago. Izan ere, neurri ezberdinetan izan arren, bi pentsamendu erregistroak daude. Batek, abstrakzio-rako ahalmenarekin harremanetan dagoena, nolabaiteko idazketarekiko erlazioa behar du. Besteak, ahozkotatasunaren erregistroaz eraikitzen dena, errealitateak ezartzen dituen loturaz baldintzaturik omen dago³³.

Halere, hirurogeigarren hamarkadan Komunikazio Teoriaren inguruko ikerketen plazaratzearekin batera³⁴, alde zurretik sinetsitako hori zehaztuz joango da. Edmund Carpenterrek eta Marshall McLuhanek bildutako "El aula sin muros" komunikazioari buruzko komunikazio antologian David Riesmanek ematen digu goian aipaturiko dikotomiarekin bukatu ahal izateko bidea³⁵. Honako hau zioen:

"Los campesinos que escuchaban Radio Ankara o la BBC o la VOA tenían ya o adquirieron pronto una sensibilidad diferente de la de aquellos que no la escuchaban. Los prime-

20. Isasi, X/Erriondo, L/Rgz.Bornaetxea, F. (1993). *Hizkuntza, Hezkuntza eta Elebiduntasuna*. in U.E.U. Bilbo.

21. Teberosky, A. (1987). *Psicopedagogia del llenguatge escrit*. Ed. de L'IME. Barcelona.

22. del Río, M.J. (1993). *Psicopedagogia de la lengua oral*. Horsori. Barcelona.

23. Petrucci, A.; Gimeno, F.M.; Graff, H.J.; Harris, W.W.; Grender, P.; Chartier, R. etab. honetaz materiala nahi izanez gero Universidad Internacional Menéndez Pelayok Valentzian Ekainaren 14tik 18ra bitartean kudeatutako "Escribir y leer en Occidente" ihardunaldien aktak eskuratzerik badago.

24. Viñao, A. (1969). "Historia de la alfabetización versus historia del pensamiento, o sea, de la mente humana" in *Revista de Educación*. 288. 35/44. Harrison, G/Callari Galli M. (1972). *La cultura analfabeta*. Barcelona. Dopesa.

25. Derrida, J. (1972). *Positions*. Minuit. Paris. Ez nahastu Derridaren "Gramatologiak" (Mintzairaren deseraikuntzarako proposamena) I. Gelbek (1952) bere *Historia de la escritura* (Alianza, Madrid. 1972) delakoan proposatzen duen idazketaren zientziarekin.

26. Ikus M. Foucaulten *Theatrum Philosophicum* liburuxkari egindako hitzaurrea. Anagrama. Barcelona. 1979. Antzerako bidetik doa J. Aranzadi "La Mimesis en Platón. Zorroegan aurkeztutako Lizentziarako Tesis.

27. Thompeon, P.(1978). *The voice of the Past*. Oxford University Press.

Vansina, J. (1967). *La tradición oral*. Labor Barcelona.

28. Ferraroti, F. (1981). *Storia e storie di Vira*. Laterza. Reina-Bari.

—Vilanova, M. ed. (1966). *El poder en la sociedad*. Boch. Barcelona.

29. Havelock, E.A. (1978). *The Greek concept of justice*. Harvard University Press. Honako lan medio Balkanetako ahozko kulturetan oinarriturik Homero zaharra irakurri eta ulertu ahal izateko bide berriak jorratuak izan dira.

30. Goody, J. (1980). *La domesticación del pensamiento salvaje*. Akal. Madrid.

Heath, S.B. (1983). "Tradición oral y tradición escrita" in *Revista Intemacional de Ciencias Sociales*, XXXV-1.

Soriano, M. (1990). "Entre l'oral et l'écrit". in *Ethnologie française*. XX,

31. Ong, W.J. (1982). *Orality and Literacy. New Accents*. New York.

Servin, M.B. (1892). "Mémoire, Histoire, Culture". in *Les Temps Moernes*. 48.

Rdzg. Bornaetxea, F. (1992). "Rap. Trikitixa zein Bertsolaritza Georges Lapassaderen esku" in *Bertsolari*. 7.

32. Lekuona, M: (1985). "Ahozko literatura Euskalerrian" *Euskal-Herria; Historia eta Gizartea*, Jakin. Donostia, 456 or. Antzerako ildotik doa Satrustegi, J.M. (1963) "La memoria en la tradición oral y en la literatura escrita del País Vasco". Eusko Ikaskuntzako IX. Kongresua Bilbo.

33. Tulviste, P. (1992) op. cit. 17. oharren.

34. Batik bat *Explorations* aldizkarian argitaratutako artikuluak ezker.

35. Riesman. D. (1959) "Tradición oral y tradición escrita" in Carpenter/McLuhan *El aula sin muros*, Laia. Barcelona. 1981. 84 or.

ros estaban preparados en su imaginación para unos viajes que probablemente nunca realizarían. Al preguntar a uno de estos campesinos qué haría si de pronto le hicieran presidente de Turquía, por ejemplo, o dónde le gustaría vivir si no viviese en su pueblo nativo, estaba en situación de contestar a estas preguntas, tenía un gran repertorio de opiniones..."

Hau da, ahozko kultura bateko analfabeto izanik ere, egungo komunikabideek emana zioten bai informazio, baita iritziak (datuak funtsean) bertako eguneroko errealitatekin at bere burua kokatu ahal izateko. Distantziatzeko pentsakerarako datu prozesamendua, bada, oinarriturik zuen irratia bidez.

Gizarte garaikide osoari egin ahal izateko aplikapena, "ahozkotasun egoeraren" deskripzioa hain zuzen, Paul Zumthorrek egin izan digu honako kontzeptualizazioaren araber:

- Ahozkotasun primarioa. Honek, dena delarik ere, idatziarekin ez du harremanik.
- Ahozkotasun nahasia, idatziarekin batera ingurune soziologikoan dagoena, non idatziaren eragina partziala, kanpotikoa eta atzeratua gertatzen den.
- Ahozkotasun sekundarioa, zeinak idatzia duen abiapuntua (ahotsak aurrez idatzirik dagoena edo idatzeko pentsaturikoa jaulkitzen du eta, bai praktika sozialaren mailan eta bai irudimenaren mailan, idatzia, ahotsaren gainetik dagoen.
- Ahozkotasun arartekotua, gaur egun irriti, disko eta beste komunikabideetan ezagutzen duguna³⁶

Beraz, egun ahozkoak garrantzia galtzearen ordeztu nola baitaiteko "ahozkotasun arartekotua" sortu du, zeinean pentsakera garatuz, pentsamendu askeak nahiz abstraktuak ekoizteko gaitasuna beharrezkoak diren erreferentzi guztiak "AHOZKARITZAREN" bidez eskuratzetik dagoen. Komunikabideek baldintzatutako gizarte garaikide honetan, Irratiak edo Telebistak Erdi-Aroan liburuak zuen esangura bera eskuratu bide dute³⁷. Horrexegatik "ahozkaritza" diogu, nahiz eta hizkuntza pittin bat bortxatu, gaztekeraz "oraltura" edota frantseseraz "oralture" esango genuke zentzu berean. Hau da, inprimategiak ezarritako "litera"tura-tik kanpoko pentsakera ekoizteko berriro ere erdi-aroko antzerako sistemaren aurrean egun aurkitzen garen neurrian³⁸.

Izan ere, gaur egungo mundua gero eta analfabetuagoa dugu³⁹ diztantiatzeko pentsamendu silogistikoa erabiltzen gero eta gaitasun handiagoa erakusten den bitartean⁴⁰. Baldintza hauetan, bada, irakaskuntzan ahozkaritza lantzearen premia dagoenez, ikus dezagun jarraian zeintzu diren bide egokienak.

3. AHOZKARITZA HEZIKETA ETA HEZKUNTZAN: STUBBS NAHIZ LABOV-EN EKARPENAK. ZENBAIT ADIBIDE EUSKAL CURRICULUMA OINARRIA DELARIK: KOPLARITZA, BERTSOLARITZA, IPUINGINTZA, IRRATIGINTZA, ETAB.

Aipatutako ahozkaritzaren ikerketa zein eskolako aho-hizkuntzaren erabilera antzindaria dugu anglofonoen soziolinguistika⁴¹. Ingelesar fonetikaren zailtasunak ezagunak direnez ez dago, beraz, horretaz arrazoiz gehiegi eman behar. Hezkuntzaren Soziologian ingelesera hitzegiteko modua gizarte jerarkiaren arabera sailapenak egin ahal izateko nola erabilia izan den ederki asko jorratutako gaia dugu⁴². Ez da hori, ordea, orain ikutuko duguna eskolar hizkuntzaren inguruan egindako ikerketak baizik. Eta zehazkiago, aho-hizkuntzen tratamendu eskolarra, hau da, horren inguruko azterketak, aplikapen didaktika eta esperientziak izango dira oraingo honetarako jorraiak.

Horretarako bi erreferentzi nagusiak Michael Stubbs eta William Labov ditugu.

3.1 M. Stubbs-ek aldarrikatu egiten du ikasleen artean erabiltzen den hizkuntza eskolako gaiak tratatu ahal izateko. Hau da, aho-hizkuntza izan behar da hezkuntzarako abiapuntua eta ezinbesteko bitartekoa⁴³. Idazketa zein irakurketa tokian tokio ahozkaritzaren menpeko aldagaia bihurtu behar da bere aburuz. Hori ziurtatzeko sortu dira Britaina Handian Hizkuntzalaritza Aplikatuaren zenbait elkarte, besteak beste, "Hezkuntzaren Hizkuntzalaritza Komitea" (1976koa) "Hezkuntz-Hizkuntzen buruzko Batzarra" edota "Britaina Handiko Hizkuntzalaritza Elkarte". Beren zereginen artean, esan bezala, tokian tokio ahozkaritza mota desberdinen ikerketa du: Glasgoweko hizkera Macaulay-ek 1978an egina, Belfast-go ingelesera Milroy-ek 1980an, urte berean Londongo hizkuntz gutxiagotuz Rosen-Burgess-ek kudeatutako ikerketa proiektua edo Reading-go hizkuntz erregistroaz Cheiro-k 1982an egindakoa.

3.2. W. Labov-ek goian aipaturiko ikerketa aplikatu gehien ematen die beharrezkoa den sakontasun teorikoa. Pennylvaniako Hizkuntzalaritza katedrun honek U.S.A.ko ingelesera ez-normalizatua hartzen du aztergai. Bertako argota mota desberdinen ikerketa medio, eta beti ere bapatekotasunaz zein ahozkaritza aritzean, B. Bernstein-ek sortutako "Hizkuntz defizitaren" aurka azalduko da. Berarentzat, tokio hizkeraz ere, bai kontzeptualizazioa baita zehazkizunetarako joera eta pentsakera logikoaren garapena ziurtatzerik bada. Areago, kasik analfabetoak diren artean ahozkaritza lanegitea litzateke hezkuntzarako bide emankorra.

Hezkuntzari buruzko adituengana hurbiltzerakoan katalandarren periferia honen inguruko ekarpen baliotsuak aurkitzen dira. Balear irltako Unibertsitatean, alde batetik, arlo honetan egindako ikerketak aipagarriak dira. Haiekiko osagarriak izanik, bestetik, Valentziako Unibertsitatean ere ahozkaritzaren erabilera pedagogikoak aztertu dute.

Balear irltan katalaneraren kulturen ospetsua den Gabriel Janer Manila⁴⁴ idazlea Hezkuntzaren Teoria eta

36. Zumthor, P. (1985) "Ahotsaren iraunkortasuna" in *Unesco Albistaria* (Urriak) 7or.

37. Chaytor, H.J. (1959) "Leer y Escibir". in *El aula sin muros*. Op. Cit. 95/103. or.

38. Rgz. Bornaetxea, F. (1981) *Bertsolaritza eta eskola*. U.E.U. Bilbo. 370 or. Bertan, J.M. Lekuonaren aholkuz, ahozkaritza kontzeptua proposatu nuen. Ildo horretatik ekoizten den pentsakera mota ikertu nuen "Kultura gutxiagotua eta pentsamenduen independentzia" izeneko komunikazioan Donostian egindako "Ontologiari buruzko lehenengo nazioarteko kongresuan-Kategoriak eta ulergarritasun orokorra" (1993ko apirilaren 23a). Aktak argitaratuta Universitat Autònoma de Barcelona Enrahonar Monografies Bellaterra, 1994.

39. Kozol, J. (1985) *Analfabetos USA*. El Roure. Barcelona, 1990.

40. Cole, M. (1981) "Where Culture and Cognition Create Each Other" *Gaztekeraz in Infancia y Aprendizaje* 25. (1984).

41. Ikus Rgz. Bornaetxea, F. (1990) "Formarrik gabeko heziketa eta euskararen berreskurapena" in *Hizkuntza /Hezkuntza*. UPV/EHU. Bilbo. 143, 44 or.

42. Bernstein, B. (1980) "Clase y Pedagogías visible e invisible" In *Nuevas reflexiones sobre la investigación educativa*. Narcea, Madrid. 1983.

43. Stubbs, M. (1984) *Lenguaje y Escuela. Análisis sociolingüístico de la enseñanza*. Cincel-Kapelusz. Madrid.

44. Janer Manila, G. (1976) "Conquestes, reconquestes i sermons" in *Lluc* 665. Palma.

Janer Manila, G. (1982) *Cultura popular i ecologia del llenguatge*, Ceac. Barcelona.

Janer Manila, G. (1989) *Pedagogía de la imaginación poética*. Alioma. Barcelona.

Historiarako unibertsitate irakaslea dugu. Ahozkaritzaz aditua, berriz, Jordi Vallespir Soler irakaslea⁴⁵. Azken honek, berriz, Valentziako Unibertsitateko irakaslea den Maria Conca⁴⁶ errefraua eta ahozko kulturari buruzko ikerketan dihardu. Guzti hauen arabera ahozkaritzaren hezkuntza erabilera gero eta errazagoa dugu. Egun, erreferenteak badaude egon horrek suposatzen duen bai ikerketa lanerako baita irakas-kuntza diseinurako ere.

Dena den, Euskal Herrian arlo honetan egindakoa ez da ahuntzaren gauerdiko eztula. Duela hamar urte pentsa ezinezkoa zena martxan dago egun. Bertsolaritzaren eskolarizazioak bai testugintza, baita esperientzien elkartrukaketa eta iharduna teorikenez ez dabaidak errazten ditu⁴⁷. Eskola nahiz eskolatik kanpo ipuin kontaketa saioak gero eta ugariagoak dira. Era berean, irratien erabilera eskolarra hedatzen ari den (Aiako eskola, Donostiako Amara-Berri edo Aitor Ikastola,...) bitartekari didaktikoa dugu. Gau egun, ahozkaritza Curriculumean uztartzeko eta ondoriozko ebaluaketa egin ahal izateko lehen ez zegoen materiala egun badago⁴⁸.

Beraz, honetan ere bukatu beharko genuke D. Ottosonen (Unescoren Zientzi Arazoetako Zuzendari Nagusia) hitzak berriro ere aipatzuz:

“Egun arte, mendebaldeko hezkuntz sistema gehienak bereziki ezker hemisferioko ahalmenak garatzera zuzendurik egon dira. Arazoa hauxe da, garunaren funtzioei buruzko gure ezagutzak aurrera egiten duen neurrian aldatu egin beharko litzatekela pedagogi sistemak”.

Hitza hauek berriro aipatzearen beharra nuen, zeren eta ene Doktoradutza Tesiaren bukaeran ere aipatzen nituen. Garai hartan aldarrikapen hitzak ziren, egun berriz, jorratzen ari den bide berri baten seinaleak. Ahozkaritzarekin egin beharreko hezkuntza lana ez baita galtzear dagoen hizkuntz edo kultur bati dagokion zorra baizik eta garaikidea dugun aro honetan pentsakera ekoizteko era egokienetarikoa bat.

Azkenik, eta Eusko Ikaskuntzako Kongresuetan ohizkoa den eskaerarako (idazkaritzak bidalitako 93ko Azaroaren 16ko eskutitza-402ko irteera— “Txostenean oinarrituz, administrazio publikoei eta gizarteari beira... gomendioak,...”) **Euskararen batasunak premiazkoa duen ahozko euskararen batasunerako beharrezkoak diren lanak lehen baitlehen bideratzen hastea eta, ondorioz, arlo horretan bai gomendioak baita arauak azalerazi daitezela eskatzeari bidezkoa deritzot. Ahozkaritza landuz hezkuntza mailan egin daitekeena horren zain dago eta.**

45. Vallespir Soler, J. (1989) *Llengua, Cultural Cognició*. Universitat de les Illes Balears. Palma.

46. Conca, M. (1990) *Paremiologia*. Universitat de Valencia.

47. Mendizabal, M/Kazabon, A. (1993) *Ahokotasuna*. Ikastolen Elkartea Donostia. Duela gutxi ezer aipatzeko aukerarik ez bazegoen ere, egun honetaz aurki daitekeen multzotik hauxe aipatzen dut dagoeneko azkena baita eta bertan bai koplaritza, bai bertsolaritza, baita ipuingintza ere lantzen baitira.

48. Reyzábal, MV. (1993) *La comunicación oral y su didáctica*. La Muralla. Madrid. Ebaluaketari buruzko atala Casanova, M.A.-k egina da. 373/4a24 orr.

del Río, M.J. (1993) *Psicopedagogía de la Lengua Oral: un enfoque comunicativo*. Op. cit. 22. oharra.